

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Arreta-galtzeak gidatzean, trafikoren kanpaina berriaren helburu izanen dira heldu den astean

*Nafarroako Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Udaltzaingoak, martxoaren 18 eta 24 bitartean, kontrol espezifikokoak egingen dituzte*

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Udaltzaingoak, Nafarroako errepideetan, gidarien arreta-galtzeak kontrolatuko dituzte, martxoaren 18tik 24ra.

Egindako azterketa ezberdinen arabera, mugikorraren bidez minutu eta erdi hitz egin ondoren, (baita esku- libreko gailuaren bidez ere) gidariak ez du seinaleen %40a antzematen, bere batez besteko abiadura %12an jaisten da, deiaren bitartean bihotzaren erritmoa bortizki bizkortzen da, eta erreakzionatzeko denbora gehiago behar du. Distrakzio hauek eta arreta galtzen den bestelako egoerak, esaterako, mezularitza zerbitzuak (whatsapp eta beste batzuk) edo GPSa programatzea, errepide zein hirieran egingen den zaintza eta kontroleko kanpaina berri honen xede izanen dira. Honen helburua da, gidatzean arreta handia mantentzearen beharraz kontzientziatzea.

Gidatzean arreta-galtzeak sahiestea xede duen ekimen hau, Bide Segurtasuneko Nafarroako Estrategiak gauzatutako ekintza planen barruan sartuta dago, eta pasa den udan, abian jarritako kanpainaren jarraipena izatea nahi da, bereziki mezuak bidaltzeko mugikorraren erabilera ekiditeko. Kanpaina instituzional hau, "Mugikorrak beti itxaron dezake, zeure bizitzak ez" goiburuean, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek aurkeztu zuen.

### Burututako kontrolak

Otsailaren 11 eta 17 artean, burututako drogak eta alkoholaren zaintza eta kontrolatzeko azken kanpainan, gidarien %1ak positiboa eman zuen alcohol kontsumoan, eta %24ak, berriz, drogen kontsumoan.

Foruzainek, Guardia Zibilek eta udaltzainek, guztira, 7.956 alkoholemia kontrol eta drogen kontsumoari lotuta 213 froga egin zituzten.